

TESTUA ETA ARGAZKIAK



Mikel Lizeaga Tamayo

Erretiratu. Mendizalea eta ibiltaria. Donostiako Antiguako mendizaleen elkarteko kidea.

SEI IBILALDI BAISH ETA MIEI ARAN-EN

Aran harana Kataluniako Ipar-Mendebalaren goi muturrean kokatua dago, piriniotar mendikatearen ipar isurialdean. Garona ibaiaren sorburu eta goi-arroaren lurraldea da, zeinak, ekialdetik mendebaldera lehenik eta hegoaldetik iparraldera gero, zeharkatzen duen.

620 km² -ko azalera du, ia-ia karratu baten forma duena. Iparraldean Nauta Garona (Haute Garonne) eta Arièja (Ariege) Frantziar departamentuak ditu mugakide, mendebaldean Ôsca (Huesca) eta Nauta Garona, hegoaldean Nauta Ribagorca eta ekialdean Palhars Sobirà. Haren lur azala-

ren ehuneko hogeita hamar 2000 metroko altitudetik gora dago. Tontor altuenak eta ezagunenak Besiberri (3015 m) eta Mollières (3010 m) dira, eta horiekin batera, Malh des Pois (2881 m), Tuc de Colomers (2933 m) eta Montardo (2833 m) nabarmentzen dira, besteak beste. Mendi ho-

rien artean berrehundik gora laku topa daitezke. Aran haranean klima atlantikoa da nagusiki, ozeano horretatik datozen haizeak jasotzen dituelako.

Aran haranean, orokorrean, hiru eremu bereizten dira: goialdea edo Naut Aran, erdialdea edo Mieï Aran eta behealdea edo



Serra de Vacanera

Baish Aran. Banaketa horretatik *terçon* (heren) hitza sortu zen, eta ondoren zati bakoitza bere aldetik are gehiago banatu zen, gaur egun ezagutzen diren sei *terçon* izateraino. Pujòlo eta Arties-Garòs *terçonek* Naut Aran osatzen dute, Castiero eta Marcatosak Miei Aran eta Lairissa eta Quate Lòcs-ek Baish Aran.

Haran atlantiar hori identifikatzen duen ikurra Okzitaniar gurutzea da (Tolosako kondeen antzinako marka) eta duen kokapen geografikoari lotua dago; Cap de Gasconha edo Gaskoiniaren goialdea (Frantziako hegoaldeko eta Italiako iparraldeko haran batzuk hartzen dituen lurraldea, Okzitania izenez ezaguna). Gaur egun hiru hizkuntza ofizial ditu: gaztelania, katalana eta aranera, azken hori okzitaniararen aldaera bat da.

Aran haranaren ibilbide historikoan eragina izan duten data esanguratsu batzuk honako hauek dira: 1313an Aragoiko Jaime II.ak, Era Querimònia opariaren bitartez,

arandarrei nolabaiteko autonomia eskaini zien, bai baliabide naturalak ustiatzeko, nola haien ordezkari politikoak hautatzeko. 1817an, Espainiako erregeak arandarraren eskubide eta libertateak onartu eta berretsi zituen. Halabaina, 1834an Espainiako Isabel II.a erreginak arandar erregi-

men politiko-administratiboa indargabetu zuen. Arandarrek erabakia onartu ez, eta ondorioz, Pascual Madozek Aran harana militarki okupatu eta arandar instituzioen abolizioa gauzatu zuen. 1979an Kataluniako Autonomia Estatutuak arandarren autogobernu-eskubidea onartu zuen.

Estanh de Laujo



SEI IBILALDI BAISH ETA MIEI ARAN-EN

Egun, hizkuntza okzitaniara koofiziala den lurralde bakarra Araneko harana da.

Aran haraneko historia modu eroso batean ezagutzeko honako liburu hauek gomendatuko nituzke:

· *Inés y la alegría*. Almudena Grandes. Liburu honek, besteak beste, PCE-k 1944ko urrian Espainiako erregimen frankista desegiteko asmoarekin Val d'Aranen egin zuen saiakera militarren kontakizun bikaina da.

· *Los pergaminos cataros*. Luis Melero. Napoleonen inbasioaren garaian kokatzen den nobela.

· *Pirineos: Más allá de las montañas*. Kris Ubach. Autoreak Piriniotan autoz egindako bidai bat kontatzen du. Kapitulu bat Aran haranari eskainia dago. Liburu interesgarria eta gomendagarria.

Artikulu hau sortzeko aukeratu ditudan ibilaldiak Baish eta Miei Aranen eginikoak dira. Arrazoia bikoitza da: batetik, mendi eta inguru ezagunenak baztertu egin ditut. Molieres, Colomers, Besiberri eta halako tontorrek aski ezagunak dira, eta zaila da ezer berririk gehitzea. Bestetik, tontor horiek gero eta neketsuagoak egiten zaizkit, eta beraz, nahiago ditut halako ahalegina eskatzen ez didaten mendi bazterretan ibiltzea. Gainetik, gailur hauek baxuagoak izateak ezegunagoak izatea dakarki, eta ez daude horren masifikatuak. Ezaugarri komuna dute guztiak: igoera gogor baten ondoren mendi-bizkar edo mendi-gandor luze samar bat, gehienetan zoru belartsu baten gainean, eta ikuspegi zabal eta gozagarriak eskaintzen dituena.

Tuc des Crambes, Montludeko bidean




Azpirarratu beharra dago, udan, Araneko hainbat naturguneren (Varradòs, Artiga de Lin, Aiguamoig, Valarties, Bassa d'Oles eta Bassa d'Arres) sarbidea arautua dagoela eta komeni dela aurrez ezagutzea erregulazio horien nondik norakoak. Gainera, guztiak ez dituzte ez data ez eta ordutegi berberak. Honako esteka honetan kontsulta daitezke erregulazio arauak: App Guidaran edo www.aparcaran.com -selharan.org

Aran haranean eta haren inguruan badira oso ezagunak diren hainbat etapetako ibilaldi zirkularrak. Horien artean ezagunenetako bat "Carros de foc" dugu. "Tour del Aneto" ere gero eta zabalduago dago mendizaleen artean. Ezagunena, eta behar bada interesgarriena, "Pass'Aran" izan daiteke. Azken honen deskribapen zehatza duzue Pyrenaicako 2015eko bigarren alean, Izaskun Estibaritz Astarloak eta Jose Inaziok Izagirrek idatzitakoa.

Jarraian, sei ibilbideren deskribapen laburrak:

**1. Les·Tuc des Neres (2287 m)·
Tuc des Cambres (2365 m)·
Montlude (2562 m)·Les**
17 km | 1460 metroko desnibela | 9 h

Ibilbide hau ez dugu Les herritik bertatik hasi. Herriko kanpinetik (Camping Cauarca izenekoa, Aran Adventure Park ere bertan dago) abiatzen den errepidea hartu eta 7 kilometroko igoera maldatsu baten ondoren, asfaltoa amaitzen den lekuan utzi



dugu autoa, bide bazterreko zabalgunee batean. Errepide asfaltatua pista bihurtzen da gunee horretan. Pista luze horrek Toran haranaren hego isurialdea zeharkatzen du Honeria aterpera iritsi arte. Gu pista horretatik itzuliko gara.


Aparkatu dugun puntutik gorantz beste pista bat igotzen da eta seinale tantai batek Tuc des Neres markatzen du. Basoan zehar igo gara pistaren sigi-sagak moztuz. Ez dago bide markaturik, baina basoa irekia da eta, hortaz, eroso bertatik aurrera egiteko. Cabana de Portet-etik pasa eta gero, horiz margotutako hesolak ikusiko ditugu, gehienak lurrean etzanak. Gandorrera iritsitakoan ikuspegia sekulakoa da: Montluderainoko gandorra egitea esperientzia ahaztezina da. Uneren batean edo bestean zorabiatzeko moduko lekuak daude, baina, esan bezala, zirrargarria da ingurua. Jaitsieran Lac de Laujoren aldamenetik igaroko gara eta haren ingurumariak udazken janzkeraz apainduak ezin dotoreago daude. Laster pistara iritsi, eta eroso-eroso autoraino helduko gara. Urtetan gora doazenentzat gogorra da itzuli hau, baina ahaleginak merezi du, alafede.

**2. Mar de Diu dera Artiga·
Era Entecada·Cap de Poilaner·
Tuc d'Arres·Coth de Baretja·
Eth Portilhon**
17 km | 1450 metroko desnibela | 7 h

Nire hasierako asmoa zen Artiga de Linetik abiatu eta Escaletatik pasata Portilhonon amaitzea. Baina uztailearen 12tik irailaren



Iera Mar de Diu dera Artigatik gora trafikoa debekatua dago, baimenduak ez dauden ibilgailuentzat. Urtez-urte aldatzen dituzte orduak eta datak, hortaz, etorri aurretik ongi kontsultatu behar dira erregulazio arauak. Horregatik, Mar de Diu dera Artigatik abiatu naiz.




Itsu-itsuan sartu naiz Barranc d'Auberten, baina berehala egin dut atzera. Oso gutxira, errepidearen eskuin ertzean seinale-tantai batek "Coth dera Montjòia" eta Hospice de France" markatzen du. Igoera gogorra da, basoan barrera lehenbizi, belardian zehar gero. Cabana dera Montanha d'Aubert (irekia eta txukuna) atzean utzi ondoren, Montjòia lepora helduta, ikuspegi ezin ederragoen festa amaigabea hasi da. Era Entecada tontorrean (3 h 45 min) ongi merezitako hamaiketako arina jan dut. Gora behera gozo, atsegin eta belartsu baten gainean, inguru ezin ederrago baten erdi-erdian Coth de Baretjaraino iritsi naiz (6 h 15 min). Eth Portilhonen bukatu dut txangoa (7 h 20 min).

Jaitsiera gogorra egin zait, tarte pikoak daudelako eta nekea nabaria delako izter eta belaunetan. Esan beharrik ez dago, bi auto behar dira jarduna burutzeko, edo bestela, taxi bat. Zeharkaldiak ez dauka inolako zailtasun teknikorik, baina desnibel metatua kontuan hartzekoa da, eta "gurdi zaharrok" porru eginda egotetik ez gara oso urruti ibiliko autora iristerako.

3. Vielhako begiratoki eta atsedeen lekua·Estanho de Vilac·Bonh de Garòs·Tuc d'Ombre·Tuc d'Arenho·Vielhako begiratokia
21 km | 1235 metroko desnibela | 8 h

Txango honen abiapuntura iristeko, Frantziatik Vielhara goazela, Vilac-eko biribilgunean herri hartara igotzen hasiko gara, eta bertara iritsi baino lehen, eskuinerantz joko dugu herriaren azpialdetik, Salient errearen gainetik pasatuz eta bertan hasten den pistatik gora jarraituz. Utzitako sobera ongi, Vielhako atsedeen lekua baino 500 bat metro beherago aparkatu dugu Kanadiar ataka baten alboan. Atsedeen lekua pasa eta berehala pista utziko dugu, basoan barrera igoz. Estanho de Vilac-en aterako gara pistara. Hortik aurrera bidea samurtu egiten da, pistaren sigi-saga zabalak modu erraz batez saihestuz.

Bonh de Garòs-eko azken aldapa oso pikoak da, ezbairik gabe eguneko zatirik exijenteena (2 h 20 min). Behin tontorrean



egonik, Tuc d'Arenhòr doan mendi gandor belartsua zoragarria da eta bi aldeetara eskaintzen duen ikuspegia ezin ederragoa da (4 h 30 min). Tontorretik Coth de Salient aldera jo dugu, eta aurki, autoraino inolako ezustekorik gabe eramango gaituen pistarekin bat egin dugu. Beherakoan, belauak protestaka ditugu, eta horrenbestez, pistatik jaitea erabaki dugu. Ibilbide honek ez dauka zailtasun teknikorik, Bonh de Garòs-eko azken malda salbu, baina desnibela eta distantzia kontuan hartzekoak dira.

4. Bausen·Còth de Vacanera·Tuc deth Plan der Ome·Cabaña Lauadors·Bausen 17 km | 1369 metroko desnibela | 7 h

Autoa herriaren sarreran dagoen aparkalekuan utzi eta gero, hura zeharkatu

dugu "Còth de Vacanera" (2 h 40 min) seinale-tantai batek norabidea markatzen digun punturaino. Igoera, neketsua, pagadian barrena doa, ahalik eta hura bukatu eta goi belardietan sartzen garen arte, Saplan izeneko inguruan. Mendi-bizkarrera iritsitakoan, ikuspegi zabal eta eder batez gozatuz iritsi gara tontorrera. Mapan Tuc d'Angost markatua dagoen punturaino jo behar da jaisten hasteko. Gu, lehenago jaisten hasi gara, F404E mugarrin hain zuzen, eta atzera egin behar izan dugu.

Jaitsieran, ez dago inolako biderik, eta txilar, erratz eta sasi artean Cabana des Lauadors-eraino iritsi gara ingurune benetan aldapatsu eta basati batean barna. Laster Carlac-eko pagadian sartu eta herrira heldu gara. Zailtasunak-zailtasun, ibilbidea eder-ederra da, ingurune paregabea. Bausen herria oso bisitatua da, turista eta ibiltari andanak Carlac-eko



ibilbide zirkularra egitera etortzen direlako. Beraz, goiz etorri beharra dago autoa herriko sarrerako aparkalekuan aparkatu ahal izateko. Hala ere, behin herria atzean utzita, bakarrik ibiliko gara goietan.

5. Betlan·Montcorbau·Estanhera Solana·Tuc de Guillhem·Cap des Cròdos·Betlan 19 km | 1400 metroko desnibela | 8 h 30 min

Betlan herriko plazako aparkalekutik abiatu gara goizeko zazpietan. Herria utzi eta gutxira, udan hutsik dagoen zalditegi baten aldamentetik pasako gara eta GR marka zuri-gorriak jarraituz Montcorbau atzean utzi eta herriaren goiko partean bi pista ikusiko ditugu. Nagusia, ezkerrera doana, albo batera utzi eta zuzen jarraituko dugu. Berehala, bidea basabide bihurtuko da eta laster Mont herriatik datorren beste pista batekin topo egingo dugu. Orokorrean, pista hauek nahiko atseginak dira paseatzeko, ez dute porlanik, eta belar ugariz estaliak daude. Hortaz, bide zabal horretatik aurrera joko dugu. Pista amaitzen denean, menditik trokan behera datorren errekarrekin bat egingo dugu. Ezker aldetik jo behar dugu, erreka gurutzatu gabe, eguneko aldapa latzenari ekin.

Aldapa gogor horren bukaeran, goi lautada belartsura iritsiko gara, askoz eroso-

Stanho de Vilac





Tuc d'Arenho-ko bidean

go ekinez. Udan, lautada horretan eguzkiak gogor jotzen du. Passada de Roca Nera lepora heltzerakoan panorama zabal eta eder bat irekiko da gure begien aurrean. Eskuine-ra joko dugu Tuc de Guillhem tontorreraino. Gainerako mendi-puntetan bezala, hemen ere ikuspegiak tontor segida amaigabea oparituko digu. Aneto-Maladeta, Lucho-naisko mendi multzoa, aldamenean Mont-lude, Mauberme arrokatzarra, Colomers, Montardo...eta Cap de Cròdos-erainoko bidea ertz-bizkarretik egin dugu.


Nik uste dut alternatiba eder eta egokiena dela. Cròdos-etik zuzen-zuzen jaitsi beharrean, sigi-saga zabal bat egingo dugu

malda pikoia saihesteko. Montcorbau herria baina piska bat gorago ermita bat bisitatu daiteke (Mar de Diu des desamparats). Zailtasunari dagokionez, gainerako ibilaldien ohar bera egingo dut; teknikoki, erraza, gurdi zaharrentzat, gogorra.

6. Vielhako tunelaren ipar ahotik 2 kilometrora (Borda deth Sabater)·Ròca de Tolosa (Joan-etorri)

13 km | 1023 metroko desnibela | 7 h

Vielha herritik tunelerantz goazela, 2 kilometro beherago (km 158), pista bat sartzen da eskuin alderantz, eta bertan, hirurehun bat metro egin eta gero, eskuin aldera beste pista bat ateratzen da. Bertan aparkatu daiteke, baina kontuz, lekua ez da zabala. Pista hori borda deth Sabaterre iristen da. Hor bidea desagertzen da, baina bordaren aldamenetik pasatuz, berehala sartzen da basoan eta bidea garbia da. Basoan tar-te ez oso luze batez ibili ondoren belardi bukaezin batean egingo dugu gora. Xenda tarteka desitxuratu egiten da baina ez dago galbiderik. Tuc de Cuenques eskuinean



utzita, izenik gabeko lepo batera iritsiko gara. Lepo horretatik ertzetik jo eta, nire us-tez ez du merezi jarraitzea, hobe itzuli naizen bidetik igotzea. Azken iguera oso piko-a da. Nire asmoa da Montpius-Montcorbison bizkar zoragarritik itzultzea, baina honez gero, porru eginda nago eta leku beretik jaistea erabaki dut. Hortaz, hona iradokizun bat (neronek burutu ahal izan ez dudana): Bassa d'Oles - Montcorbison - Letassi-Montpius - Tuc de Cuenques - Roca de Tolosa - Borda deth Sabater.

NIRE ESKER ONENAK NIRE TXANGOKIDEEI:

Montludeko iguera Karmele Uranga, Antton Gurrutxaga eta Beñardo Irastorza lagunekin egin nuen. Gainerakoak Beñardo Irastorzarekin burutu nituen.

